

Durango Euskal Liburu eta Disko Azoka

Durango abenduaren 6tik 10era



Durango Euskal Liburu eta Disko Azoka

Gerediaga Elkarte

157 posta-kutxa

48200 Durango

Tel.: 94 681 80 66

Fax.: 94 621 80 23

e-mail: gerediaga@durangokoazoka.com

www.durangokoazoka.com

www.gerediaga.com

DURANGOKO EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKAREN ARAUDIA.

1. artikulua.

a) Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka, liburu, disko eta beste argitalpen batzuen erakusketa eta salmentarako sortua da.

b) Liburuak euskaraz edo erdaraz idatzirik egon daitezke. Erdarazkoetan beharrezkoa da euskal gaiez jardutea.

c) Disko arloan, euskara izango da onartuko den hizkuntza bakarra. Musika hutsez osatutako diskoetan, euskal musikarien lanak izango du bakarrik tokia Azoka honetan.

2. artikulua.

Antolaketa, betidanik *Gerediaga Elkartearen* erantzukizuna da.

3. artikulua.

a) *Gerediaga Elkartearen* zeregin bat argitaletxeen, diskoetxeen eta banatzaileen Azoka antolatzea da. Argitalpenak bakoitzak bere standean aurkeztu eta saldu ahal izango ditu; beste inon aurkeztea debekatuta dago.

b) Partaideren batek lehenengo artikuluan aipatutako materiala ez den beste bat salgai badu, material hori kentzeko eskatuko diote antolatzaileek standaren arduradunari.

Agindu hori betetzen ez bada, hurrengo ediziorako kontuan izango dute antolatzaileek, eta *Gerediaga Elkartea* ez du ziurtatzen standen erreserba.

4. artikulua.

Hauek izango dira parte hartzaileak: argitaletxeak, diskoetxeak, banatzaileak eta liburu erabilien merkatariak.

5. artikulua.

Argitaletxe edo diskoetxe batek baino gehiagok, elkarlanean, argitaratutako argitalpenak, partehartzaile gisa agertzen diren standetan baino ezin izango dira aurkeztu eta saldu, aldean arteko adostasunik ez badago.

6. artikulua.

Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan stand bat alokatu ahal izateko, argitaletxeek, diskoetxeek zein banatzaileek baldintza hau bete behar dute: gutxienez sei liburu edo disko, ala bi bilduma katalogoan aurkeztea, eta gutxienerako hori salgai egotea standean.

7. artikulua.

Erakunde publikoek, profesionalak eta enparauek, 6. artikulua betetzerik ez badute, Gerediaga Elkartearen ebazpenak balioko du erabakitzeke.

8. artikulua.

Banatzaileak argitaletxe edo diskoetxe baten ordezkari bezala badatoz Azokara, baldintza hauetan izango da:

- a) Standa argitaletxe edo diskoetxe horren izenean egongo da.
- b) Argitaletxe edo diskoetxeak, eskutitz baten bidez baieztatu beharko du antolatzaileek jarritako epean, bera dela etxe horren ordezkaria Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan.
- c) Argitaletxe edo diskoetxe batek banatzaile bi edo gehiago baditu ordezkari, banatzaile bakoitzak dagokion zerrenda aurkeztuko du.
- d) Argitaletxeen eta diskoetxeen eskubide eta betebeharrak izango dituzte, ordezkatzeko duen etxekoez gain, argitaratutako beste liburu eta diskorik ezin izango du saldu stand horretan.

9. artikulua.

Gerediaga Elkarteak erabakiko du urtero standen errentaren prezioa.

10. artikulua.

Partaideek errentan hartutako standak antolatzaileak jarritako epean ordaindu beharko dituzte.

11. artikulua.

Gerediaga Elkarteak argitaratzen duen Katalogoa osatzeko, argitaletxeek, diskoetxeek eta banatzaileek antolatzaileek eskatutako informazioa bidali beharko dute jarritako epean eta behar diren berezitasunak aipatuz.

12. artikulua.

Argitaletxe, diskoetxe eta banatzaile guztiek urte osoan argitaratutako argitalpen bakoitzaren bina ale, - liburu, disko, bilduma -, eman behar dizkiote *Gerediaga Elkarteari*.

13. artikulua.

Antolatzaileak, argitaletxeei, diskoetxeei eta banatzaileei, euron produktuen aurkezpena egiteko areto bat eskainiko die, betiere Azokako programaren arabera.

14. artikulua.

Azokara datorren argitaletxe, diskoetxe eta banatzaile bakoitzari Azokako katalogoaren bina ale emango zaizkio.

15. artikulua.

8. artikuluaaren b eta d atalak eta 10, 11 eta 12. artikuluaak betetzen ez badira, *Gerediaga Elkartek* ez du ziurtatzen standen erreserba.

16. artikulua.

Argitaletxe, diskoetxe eta banatzaileak *Gerediaga*ko bazkideei Azokan salgai jarritako produktu guztietan Elkartek aurrez erabakitako beherapena egitera *derrigortuta daude*.

17. artikulua.

Argitaletxe, diskoetxe eta banatzaileek azokaratutako produktuetan, katalogoan jarritako salneurria baino garestiago ezin izango dute saldu.

18. artikulua.

Araudi honetan agertzen ez den gertaeraren bat gertatuko balitz, *Gerediaga Elkartearen* ebazpenak erabakiko du.